



## BOZERAMAILEEN BATZORDEAREN AKTA

## ACTA DE JUNTA DE PORTAVOCES

2017ko uztailaren 18an, 11:30etan, egindako eta honako pertsona hauek osatutako Bozeramaileen Batzordean:

Alberto Albístegui  
Arcadio Benítez  
Gorka Errasti  
Elena Ibáñez  
María Jesús Aguirre

Honako akordio hauek hartu ziren.

1.- Eibarko EH-Bildu taldeak aurkeztutako Altsasuko gertaerei buruzko Adierazpen Proposamena.

Plenora ez eramatea erabaki da.

2.- Irabazi-Ganemos Eibar taldeak aurkeztutako mozioa Eibarko festak jasangarriak izateko irizpideei buruz.

Plenora ez eramatea erabaki da. Mozioan agertzen den Sail edota erakunde bakoitzak txosten bat egingo du eta Kultura batzordean aztertuko dira, hori baita mozio honetan jasotzen diren gaiak aztertzeko foroa eta bertan erabakiko da zein gai eramango diren Plenora eta zeintzuk ez.

La Junta de Portavoces, en reunión celebrada el 18 de julio de 2017 a las 11:30 horas y con la presencia de:

Alberto Albístegui  
Arcadio Benítez  
Gorka Errasti  
Elena Ibáñez  
María Jesús Aguirre

Adoptó los siguientes acuerdos.

1.- Propuesta de Declaración presentada por Eibarko EH-Bildu sobre los altercados de Alsasua.

Decide no elevarse a Pleno.

2.- Moción presentada por Irabazi-Ganemos Eibar sobre criterios para fiestas sostenibles en Eibar.

Decide no elevarse a Pleno. Cada Departamento y/o entidad aludida en la moción elaborará el informe correspondiente y se valorarán en la comisión de Cultura al considerarse que es ése el foro en el que se deben analizar y será ahí donde se decida qué cuestiones irán a Pleno y cuáles no.



## BOZERAMAILEEN BATZORDEAREN AKTA

## ACTA DE JUNTA DE PORTAVOCES

Gai ordenean jasotzen diren puntuez gain, Elena Ibáñez zinegotziak ekaineko osoko bilkuran bozkatu gabe gelditu zen RPTaren Balorazio Batzordearen osaerari buruzko mozioaren inguruan hitz egin du. Horrela, oposizioak beste osaketa aukera bat aurkeztu du, orain arte landutakoen aurrean: Alkatea, Pertsonal saileko zinegotzia, eta Eibarko EH-Bildu eta Eibarko EAJ-PNV taldeetako ordezkari bana, sindikatuen ordezkari batzuek gabe mantenduz. Irabazi-Ganemos Eibar taldeak adierazi du “ados dagoela ez egotearekin” Mahai horretan. Hori horrela izanik, Alkatearen kalitatezko botoa mantentzea proposatzen da bai Mahai politikoaren barne eztabaidetan eta baita Mahaiaren osotasunean ere.

Aldi berean, Eibarko EH-Bildu taldeak Eibar Sahara Elkartek egindako eskaera luzatu du denbora baterako lokal bat uzteko material desberdina gorde ahal izateko eta galdetu da Plenora eramaten ez diren mozio eta adierazpenei egiten zaien jarraipenari buruz.

Eta goizeko 12:15ak izanik eta gainerako gairik ez dagoenez, Jarduneko Alkateak bilerari amaiera eman dio.

Fuera de los puntos del orden del día, Elena Ibáñez ha sacado a colación la moción sobre la composición de la Comisión de Valoración de la RPT que quedó pendiente en el pleno de junio. Así, la oposición ha presentado una composición alternativa a las anteriormente planteadas: Alcalde, concejala de Personal, Eibarko EH-Bildu y Eibarko EAJ-PNV, manteniéndose sin cambios la composición sindical. Irabazi-Ganemos Eibar “está de acuerdo en no estar” en la Mesa. Siendo eso así, se propone mantener el voto de calidad del Alcalde en los debates internos de la parte política de la Mesa y en el conjunto de la Mesa.

Asimismo, Eibarko EH-Bildu ha trasladado una solicitud de Eibar Sahara Elkartea para facilitarles un local provisional de almacenamiento de material diverso y se ha puesto sobre la mesa una duda sobre el seguimiento realizado a aquellas mociones y declaraciones que no se elevan a Pleno.

Y siendo las 12:15 horas, y no habiendo más asuntos que tratar, el Alcalde en funciones levanta la sesión.